

Zezen gorri

Emmanuel Iñarra-k kontatua

Munduko ohoin azkarrena euskalduna zen ; ba bizkaitarra zen, ba ba, Bizkaiko herri ttipi batean bizi zen ; denek bazakiten ohoina zela bainan nehork ez zuen sekulan harrapatu. Jendeek bazakiten ere ebasten zuela, harpe batean gordetzen zela bainan nehork ez zuen sekulan atxeman bere harpea. Eta egun batez, ohoina zendu zen beste herri batean. Beraz jendeek zer egin zuten ?

Bere etxera joan ziren, dena miatu zuten bainan ez zuten deus atxeman. Eta ohoinaren harpea xekatu zuten bainan ez zuten atxeman ; beraz biztanleek zer egin zuten ?

Bilboko gizon jakintsu batzuk jinarazi zituzten, holako jendeek karkula aski konplikatuak egin zituzten eta momentu batez erran zuten : ba ba badakigu harpea nun den ; ah bon, biztanleak jende jakintsuekin mendira joan ziren eta ba harpea atxeman zuten.

Bainan nehork ez zuen nahi harpe barnean sartu, eta azkenean bat sartu zen eta entzun zen :
« Mouh »... .. « Ouh la la la ». « Zer da holako bitxikeria ? »

Bigarren gizon bat harpean sartu zen eta momentu batez animaleko zezen gorri bat jin zen eta brau gizona uzkaile zuen.

Zezen gorri.

Ohoinaren arima Zezen gorri bilakatu zen. Jendeek Zezen gorri ikusi zutelarik ohartu ziren ba ba, Zezen gorria hor baldin bada erran nahi du altxorra hor dela. Bainan nola egin ?

Gizon zahar batek ideia bat ukan zuen :

« He zendako ez genuen ohoinaren gorputza harpera eraman ? »

Beraz lau gizon beste herrira joan ziren, ohoinaren gorputza hartu zuten eta harpearen aitzinean lurperatu zuten. Nehork ez zuen nahi harpearen barnean sartu, bat entseatu zen, bigarren bat sartu zen, soinurik ez, hirugarren bat harpearen barnean sartu zen, soinurik ez zen.

« Zatozte ! Zezen gorri desagertu da ! Zatozte zatozte fite ! »

Beraz biztanle guziak harpearen barnean sartu ziren eta momentu batez animaleko gela bat atxeman zuten ; ebatsiak izan ziren gauza guziak hor ziren. Herritik kutxa ainitz ekarri zituzten eta bete zituzten eta kanpoan ezarri zituzten. Eta azken kutxa kanpoan izan zelarik, boz bat entzun zen :

« Milesker ».

« Nor da mintzatu ? »

« Zu zira mintzatu ? »

« Ez, zu zira mintzatu ? »

« Ez, nik ez dut deusik erran ».

Gizon zaharrak erran zuen :

« Ea ea ideki kutxa bat ».

Kutxa ideki zuten, barnean ez zen deus. Eta beste kutxa guziak ideki zituzten. Hutsak ziren. Erranen dauzuet :

« Munduko ohoin azkarrena euskalduna zen ».

